



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

BIZKAIKO ALBAITARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTU OROKORREI BURUZKO TXOSTENA

10/22-SUST-(2017) LEAren proiektua

Sumarioa:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEAren ESKUMENAK.....	2
III.- ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK	3
IV. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA-ETA.....	5
1. Elkargokide izatea.....	5
A. Elkargo bateko kide izan beharra	5
B. Elkargoan sartzeko baldintzak	11
C. Elkargokide izatea ukatzea.....	15
2. Elkargokideen ordezkariak.....	16
3. Lanbideko ordainsariak.....	17
4. Aurrekontua edo enkargu-oharra.....	18
5. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua.....	19
6. Onespena	20
7. Elkargoaren baliabide ekonomikoak	22
8. Elkargoa lehia elkargokideekin	23
9. Kuotak biltzea.	24
10. Profesionalak ordezkatzeko zerbitzuak ematerakoan	25
11. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan	25
12. Sozietate profesionalak eta Elkargoko Erregistroan inskribatzea	27
13. Perituen zerrendak.....	28
14. Elkargokideen betekizunak.....	29
15. Albaitariak lehiaren araudira egokitzea.....	30
V. ONDORIOAK.....	30

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

2017ko martxoaren 9ko bileran, Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, aipatu diren kideek osatuta dagoenak, Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialaren



Estatutu Orokorren (Estatutuak) aldaketari buruzko txosten hau ematea erabaki zuen.

I. AURREKARIAK

1. 2016ko irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean (LEA), Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita. Idatzi horren bidez, LEAri eskatu zion txosten bat egin zezala, aipatutako estatutuak lehiakortasun arloan indarrean dagoen araudira nola dauden egokituta jakiteko.¹

II. LEAren ESKUMENAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak 3.3 eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau². Eskumen horien helburua da benetako lehia sustatzea Euskadiko merkatuetan. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horrelako neurrien esparruan, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, besteak beste.

3. Lehiaren Euskal Agintaritzak bi motatako gomendioak emango ditu txosten honetan: araudiaren balizko urraketa agerian jartzen dutenak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten Estatutuetako pasarteen aldekoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

Estatutuen inguruan lehiakortasunaren ikuspegitik baino ez da kontsideraziorik egingo, Estatutuak aldatzeko administrazioaren onarpen-prozeduraren barruan.

4. Txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko

¹ Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialaren Estatutuak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2002ko ekainaren 25ean emandako Aginduaren bidez onartu ziren (2002ko abuztuaren 16ko EHAA, 154. zk.).

² Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu Estatutuetakoz zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

III.- ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK

5. Gure antolamendu juridikoak, profesionalen elkargoei buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, zera ezartzen du EKren 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta LDL bete behar dute, bere osotasunean. Egoera horren iturburuan, Europar Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatzearen ondoriozko zenbait arau-aldaketa daude. Lanbide-elkargoei buruzko estatu-araudiak Zuzentarau hori baino lehenagoko erregulazio bat du oinarri: Elkargo Profesionalen 1974koa Legea (aurrerantzean, EPL). EAEn, Euskal Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluen jardunari buruzko Legea (aurrerantzean, EEL). Dena dela, une honetan zuzentarau hori Estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan betearazteko hainbat xedapen daudenez, aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta horrenbestez, bai eta elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan hartzekoak dira, bereziki, Aterki Legea, *Omnibus* Legea edo EAEko 7/2012 Legea³.

³ 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.

2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalen buruzkoa, 40 zenbakiko BOE, 1974ko otsailaren 15a; honako hauek aldatu dutena: 74/1978 Legeak, abenduaren 26koak, BOE-A-1979-697; 5/1996 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, BOE-A-1996-13000; 7/1997 Legeak, apirilaren 14koak, BOE-A-1997-7879; 6/1999 Errege Lege Dekretuak, apirilaren 16koak, BOE-A-1999-8577; 6/2000 Errege Lege Dekretuak, ekainaren 23koak, BOE-A-2000-11836; 25/2009 Legeak, abenduaren 22koak, BOE-A-2009-20725; 5/2012 Legeak, uztailaren 6koak, BOE-A-2012-9112. Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1974-289&b=2&tn=1&p=20091223>.

18/1997 Legea, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena (EHAA, 237. zk., 1997ko abenduaren 11koa).

Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa, Aterki Lege deitua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena, Omnibus Lege deitua (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308 zk.); eta Eusko Legebiltzarren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena (2012ko apirilako 30eko EHAA, 84. zk.).



EEL Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe, betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulu horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Hori dela eta, Bizkaiko Albaitariaren Elkargo Ofizialak EEL Legean ezarritakoari jarraitu behar dio, Europar Batasuneko araudira egokitzeko 2012an egindako aldaketan ondoren indarrean dagoen testuari, hain zuzen. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «Elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian birmoldatzen diren unean».

6. Elkargoek lehiari buruzko arautegia bete beharko dute, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, Estatutuen testua kontuan izan gabe, Elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia babesteko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako⁴.

7. EPLk orokorki aurreikusten duen funtzioa, hots, lanbidea ordenatzekoa, legeak ematen dituen eskumeneren muga-barruan soilik baliatu daiteke⁵.

Adierazi behar da, horrez gain, lanbide- eta enpresa-jarduerak gauzatzen dituztenen askatasuna mugatzen duten erregulazioak ez daudela administrazio-agintari edo -korporazioen arielen mende⁶.

⁴ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa. (RC 5763/2006). Auzitegi Gorenaren Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 2007ko ekainaren 19koa (9449/2004 Errege Dekretua): Auzitegi Gorenaren Epaia. Administrazioarekiko Auzien Sala, 2008ko azaroaren 4koa (5837/2005 Errege Dekretua).

⁵ Konstituzio Auzitegiaren 93/1992 Epaia, ekainaren 11koa, babes eskeko 1645/1988 errekurtsioan emana.



EPLren 5. artikuluan beren lurralde-esparruan elkargo profesionalei dagozkien funtzioak zerrendatzen dira, eta, desegoki idatzi denez, hau da, zerbitzuen Zuzentzura egokitu ez denez, gure antolamendu juridikotik kendu behar da premia. Eta, idazkera desegoki horren ondorioz, elkargo profesionalek ezin dute pentsatu zerbitzu profesionalen eskaintza agindu dezaketela.

IV. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA-ETA

1. Elkargokide izatea

A. Elkargo bateko kide izan beharra

8. Konstituzio Auzitegiak Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua, Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duenak, interpretatu eta honako hau ezarri du: «Elkargo bateko kide izan beharra konstituzionalki zilegi izango da, interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean»⁷. Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionaletara biltzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan –bereziki elkargoko kide egitera behartuz–, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁸.

Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko Zuzentzura aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- Ordena publikoko, segurtasun publikoko, osasun publikoko edo ingurumenaren babeseko arazoak direla-eta justifikatuta dagoenean (12. artikulua).

⁶ Konstituzio Auzitegiaren 83/1984 Epaia, uztailaren 24koa, 80/1983 inkonstituzionaltasun-arazoan emana.

⁷ Konstituzio Auzitegiaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituena. Era berean, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioako Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienean elkargoko kide nahitaez izatea beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak ez dituztelako garatzen lanbidearen antolamenduaren arabera, hain zuzen.

⁸ Halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epai hauek daude: 1983ko otsailaren 10ekoak –As. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere kasua Belgika, edo 1993ko ekainaren 30ekoa – Sigurdur A. Sigurjónsson kasua Islandia, A seriea, 264. Azken horretan neurritz kanpokotzat jotzen da taxilari bati taxi-gidarien erakunde bateko kide egiteko lege ezarritako betebeharra.



- Eskakizuna ez denean diskriminatzailea, ez zuzenean, ez zeharka, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera (5. artikulua).
- Beharrezkoa denean; hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean (5. artikulua).
- Lortu nahi den helburua lortzeko egokia denean; hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean (5. artikulua).
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean (5. artikulua).

EAEn, EELren 30.1 artikulua arautzen du lanbide batean jarduteko elkargo bateko kide egiteko betebeharra eskatzeko aukera. Xedapen horrek hau ezartzen du: «elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kidea izatea, dagokion legeak horrela jasotzen duenean»⁹. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da zuzenbidearen arabera kotzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso behar da Lehia Babesteko Legearen 4. artikulua babesa izango badu¹⁰.

Oro har, Omnibus Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma¹¹. Une honetan, eta EPLren 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena dela, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak lege arautzen ez diren bitartean, eta Omnibus Legearen

⁹ 2013ko urtarrilaren 17ko Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko BOE, 37. zenbakia), Andaluziako elkargo profesionalen buruzko legearen gainekoa da; haren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboa da elkargoa derrigorrez kide egin beharra ezartzea.

¹⁰ Aipatutako 4. artikuluko «Legeak salbuetsitako jokaerak» epigrafeak honako hau dio: «Lehiaren defentsaren arloko erkidegoko xedapen behin-behineko aplikazioari kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei». Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira».

¹¹ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira», baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusitako beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoaren osasunaren babesa eta osotasun fisiko edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez».



laugarren xedapen iragankorrari jarraituz, hura indarrean jarri zen unean nahitaezko zirenak finkatu dira. Horregatik, aldi baterako, lehendik zeuden elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauan ezarrita egon arren.

9. Bestalde, Osasun Lanbideak Antolatzeko Legeak (OLAL) –horien artean albaitari-lanbidea dago– isilean mantendu ditu legea indarrean sartzean ezarritako elkargoko kide izateko betekizunak. Hala, 2.4. artikulua hau adierazten du: «Osasun-lanbide batean nor bere kontura edo beste baten kontura aritzeko, beharrezkoa izango da dagokion titulu ofiziala izatea, lanbide horretan aritzeko espresuki gaitzen duena. Bestela, 4.2 artikuluan aurreikusitako ziurtagiria beharko da, eta dagokionean, hari egin beharko zaio jaramon, aplika daitezkeen gainerako legeetan eta profesionalen elkargoak erregulatzen dituzten arauetan»¹².

Espainiako Albaitarien Elkargoaren Antolamenduaren Estatutu Orokorrak onartzen dituen 126/2013 Errege Dekretuak jarduera profesionala arautzen du, 62. artikulua bidez¹³:

“1. Dagokion Albaitarien Elkargo Ofizialean onartua izateko eskubidea izango du: Albaitaritzako Espainiako Lizentziatura edo Gradua duenak, edo atzerriko tituluak dituenak –baldin eta Espainiako eta Europar Batasuneko araudira egokitzen badira, Espainiako Administrazioak homologatu edo onartu badu Espainian albaitari-lanbidea burutzeko eta Estatutu hauetan adierazitako baldintzak betetzen baditu–.

2. Albaitari-lanak egiteko alde aurretik dagokion Elkargo Profesionalean kide behar da ezinbestean, kide egitea nahitaezkoa bada. Izena emateko edo elkargoko kide egiteko kuota ezin izango da izena emateko izapideekin lotutako kostuak baino handiagoa izan. Albaitarien Elkargo Ofizialek behar diren baliabideak izango dituzte, eskatzaileek bide telematikoz egin ahal izateko elkargoko kide bihurtzeko izapideak, Estatuko Elkargo Profesionalen Legeko 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Jardun profesionala honela egiazta daiteke:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura, autonomia-erkidegoenera eta Ceuta eta Melillako hirienera eta tokiko administrazioenera.

¹² 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Osasun arloko Lanbideak Antolatzeari buruzkoa (2003ko azaroaren 22ko BOE, 280. zk.). Hemen eskuratu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-21340>.

¹³ 126/2013 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, Espainiako Albaitarien Elkargoaren Antolamenduaren Estatutu Orokorrak onartzen dituena. (2013ko martxoaren 9ko BOE, 59. zk.). Hemen eskuratu daiteke: 126/2013 Errege Dekretuan. Honako dekretu hau indargabetzen du: 1840/2000 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa. Haren bitartez, Espainiako Albaitarien Elkargoaren Antolamenduaren Estatutu Orokorrak onartzen dira. Indargabetutako Errege Dekretuaren 62. Artikuluak ezartzen zuen Albaitarien Elkargo Ofizialean sartzeko ezinbestekoa zela alde aurretik albaitari-lanetan aritu izana.



- b) Albaitaritzarekin zerikusia duten enpresen, erakundeen, ustiatgien eta industrien edo negozioen zerbitzura.
 - c) Libreki, albaitariak aurreko atalean jasota ez dauden jarduera profesionalak Albaitaritzako Lizentziatura edo Gradua edo lanbidea burutzeko eskubidea ematen dion beste edozein titulu izanik egiten dituenen.
4. Edozein modalitatetan lanbidea burutzeko, elkargoko kide diren albaitariak erabat jarraituko diote indarreko araudiari, bai eta lanbidea antolatzeko Estatutu Orokor hauetan ezarritako eta Albaitarien Elkargoaren antolakundeak hartutako arauak ere.

Halaber, hirugarren xedapen iragankorrak elkargoko kide nahitaez bihurtu beharra dagoela arautzen du:

“Abenduaren 22ko 25/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz, bertan aipatutako legea indarrean sartu bitartean (lege horrek xedatuko du zer lanbiderako egin beharko den elkargoko kide), indarrean dagoen derrigortasuna mantenduko da, Estatutu Orokor hauetako 62. artikuluan jasota dagoena”

Agindu horiek idaztea onartu da 126/2013 Errege Dekretua onartu bidez, beraz, Omnibus Legea indarrean sartu ondoren onartu da. Espainiako Albaitarien Elkargoaren Elkartearen 2000. urteko Estatutu Orokorrek elkargoko kide egiteko betebeharra ezartzen bazuten ere, Lehiaren Espainiako Batzordea zenak dioenez, elkargoek legediaren aldaketetara egokitzeko onartzen dituzten estatutuek ez lukete ezarri beharko inolaz ere elkargo bateko kide egiteko betebeharra edo, gutxienez, aipatu beharko lukete betebehari hori legezko maila ez duen arau batek ezartzen duela eta behin-behinekoa dela, alegia, lege-maila arau batek ezartzen duen artekoa¹⁴. Elkargoko kide egin beharra Estatuko lege batean zehazten ez bada, legearen aurkakoak izango dira *Omnibus legean* xedatutakoak urratuz onartzen diren xedapenak¹⁵.

“Hala ere, Omnibus Legeak xedatzen duenez, elkargoko kide derrigorrez egitea arautzen duen hurrengo legea indarrean sartu bitartean, indarrean sartzeko unean, hau da, 2009ko abenduaren 27an, elkargoko kide egiteko indarrean dauden betekizunak mantendu behar dira. Horren ondorioz, gaur egun Estatuko legean ezarri ez diren elkargoko kide derrigorrez bihurtzeko egoerak ikus daitezke. Elkargoko kide egiteko derrigortasuna arautzen duen legea premiaz onartu behar da aginduz, txosten honetako 2. atalean luze eztabaidatu denez.

Horretarako, ulertzen da zeharka indarrean daudela maila ezberdineko araudietan bere garaian ezarritako betekizunak, gaur egun elkargoetako estatutuetan jasota daudenak. Halere, argi dago, elkargoko kide bihurtzeko derrigortasunari dagokionez, Estatuko legea ez den araurik ezin duela berrikuntzarik egin. Legeak berriki izan dituen aldaketetara egokitzeko onartzen diren elkargoetako estatutuek ez dute aipamenik egin

¹⁴ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA *Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruzko txostena*, Madril, 2011. 42. Webgune honetan irakurri ahal da: https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_y_Estudios_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf.

¹⁵ *Elkargoei buruzko txostena... op. cit.*, 44. orr.



beharko elkargoko kide egiteko derrigortasunari buruz, edo, gutxienez, aipatu beharko dute derrigortasunak islatzen duela maila egokiko arauetan ezarritakoa, bai eta "iragankorra" dela ere, Estatuko legeren batek xedapenik ematen ez duen bitartean.

10. Estatutuetan Elkargo bateko kide izateko derrigortasuna agindu hauetan agertzen da :

1. artikulua Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren izaera juridikoa.

(.....)

5. (...) Beraz, ezinbestean barne hartzen ditu albaitari guztiak, indarreko legeen arabera, lanbideko edozein modalitatetan jarduten dutenak, independenteki edo Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoaren, foru-erkidegoaren, tokiko erakundearen edo instituzioen zerbitzura, baita bestelako erakunde publiko edo pribatuaren zerbitzura.

Albaitaritzako titulua izan arren, lanbidean jarduten ez dutenek elkargoko kide egitea eskatu ahal izango dute nahi izanez gero.

Elkargoko kide egiteko prozesua Estatutu hauetako 72. artikuluan arautzen da. Salbuespen moduan, Estatutu hauetako 79. artikuluan xedatutakoarekin bat, elkargoko kide egiteko itzaroten ari den albaitari bazkidearen figura onartuko da. (...)

72. artikulua. Jardun profesionala

1. Albaitaritzako Lizentziatura edo Graduak titulua duenak eta Estatutu hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituenak eskubidea izango du Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialean onartua izateko.

2. Nahitaezko eta alde zuzeneko eskakizuna da albaitaritzan aritzeko, edozein modalitatetan, Bizkaian, Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuan edo albaitarien beste edozein elkargotan sartzea, Eusko Legebiltzarraren azaroaren 21eko indarreko 18/1997 Legean xedatutako salbuespenak izan ezik (Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legea). Izena emateko edo elkargoko kide egiteko kuota ezin izango da izena emateko izapideekin lotutako kostuak baino handiagoa izan. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak behar diren baliabideak izango ditu, eskatzaileek bide telematikoz egin ahal izateko elkargoko kide bihurtzeko izapideak, Estatuko Elkargo Profesionalen Legeko 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Jardun profesionala honela egiazta daiteke:

a) Funtzionarioa edo kontratupekoa izanda, Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako Foru Aldundiko edo tokiko administrazioen zerbitzura.

b) Albaitaritzarekin zerikusia duten enpresen, erakundeen, ustiatuek eta industrien edo negozioen zerbitzura.

c) Modu askean, Albaitaritzako lizentziaren babespean egiten den eta aurreko letretan adierazi gabe geratu den jardura edo lan oro. (...)

73. artikulua Elkargoan sartzea.

1.- Bizkaiko lurralde historikoan albaitari-lanak, edozein modalitatetan, egin nahi dituztenek jardura profesionalarekin hasi aurretik, dela autonomo gisa edo beste norbaiten kontura eta dela erakunde publikoetan edo pribatuetan (edo sozietate



profesional bateko kide profesional gisa), eskatu beharko du aipatutako Albaitariaren Elkargo Ofizialean izena ematea, bere egoitza profesional bakarra edo nagusia dagoen lurraldean.

(....)

3. Elkargoko kide egin ezean, Bizkaiko Albaitariaren Elkargo Ofizial Prestuak legearen barruan lanbidea burutzen dutenak ofizioz elkargoko kide egin ahal izango ditu, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen espedientea egin ostean eta interesdunari entzunaldia eman ostean.

11. Egun, albaitariaren lanbidean jarduteko nahitaezkoa da Elkargoko kide egitea, eta horrek mugatu egiten ditu bai lehia bai lanbidean askatasunez aritzea; azken batean, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluan aitortzen den lan egiteko eskubidea urratzen du. Mugatze horiek oinarri bakarra izan dezakete: interes publikoa eta ondasun juridikoak babesteko arrazoi sendoak izatea, nahitaez elkargoko kide egiteko beharra duen lanbidean askatasunez aritzea baino sendoagoak direnak.

Albaitari-lanbidean jarduteko, elkargo bateko kide izan beharra dago derrigorrez, eta hori erregelamendu izaerako arau batean jasota dago, zerbitzuen Zuzentarauaren eta Omnibus Legearen ostekoan. Beraz, bi araudien aginduak ez dira bete.

Hala ere, aintzat hartuta elkargoko kide egiteko ezarrita dagoen araubidea indarrean dagoenarekiko ez dela aldatu *Omnibus* Legea indarrean sartzerakoan, eta, osasun-arloko lanbide den heinean, aipatutako derrigortasuna mantentzea oso probablea dela, Lehiaren Euskal Kontseiluak uste du, gutxienez, Estatutuetan gehitu beharko litzatekeela elkargoko kide egiteko derrigortasuna zeharka mantenduko dela, legeak horren inguruko araubidea xedatu bitartean¹⁶.

¹⁶ LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA *Albaitariaren Euskal Kontseiluaren Estatutuei buruzko txostena*. Bilbo, 2014. Hemen eskuratu daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/INFORME%20DEFINITIVO%20ESTATUTOS%20CONSEJO%20VETERINARIOS.pdf. Agiri honen 11. zenbakian nahiz eta Haginlariaren Euskal Kontseiluaren estatutuek ez duten arautzen elkargo bateko kide egiteko betebeharra, gutxienez, aipatu beharko lukete lanbidea ordezkatzeko eskumen eskusiboa (1.b) artikulua) behin-behinekoa dela, alegia, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa den bitartean iraungo duela. Alde horretatik, nolana ere, Lehiaren Euskal Agintaritzza jakitun da, osasun-arloko lanbide batez ari garenez gero, oso litekeena dela aurrerantzean ere nahitaezkoa izatea elkargo bateko kide egitea.

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUNEN MINISTERIOA. *Zerbitzuen eta Elkargo Profesionalen Legearen Aurreproiektua*. 2013. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.mineco.gob.es/stfls/mineco/comun/pdf/APLSCP.pdf>. Jadanik indargabetu den Aurreproiektuko lehen xedapen osagarriak ezartzen zuen Albaitariaren Elkargoetako kide egin beharra zegoela, nahitaez, albaitari-lanak burutzeko.



Aurrekoaz gain, Elkargoaren helburuak elkargoko kide egiteko araubidearekin lotuta dauden modua gorabehera, Estatutuek, gutxienez, jaso beharko dute lanbidea ordezkatzeko ahalmen eskusiboa zeharka mantenduko dela, legeak elkargoko kide egitea derrigorrez eskatzen duen bitartean.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 1.5 eta 72. artikulua aldatzea iradokitzen da, adierazitako zentzuan.

Halaber, 1.5 eta 3.1 artikulua aldatzea iradokitzen da, Elkargoaren helburuen artean lanbidea ordezkatzeko ahalmen eskusiboaren zeharkako izaera gehitzeko, legeak elkargoko kide egitea derrigorrez eskatzen duen bitartean.

Gainera, elkargoko kide egiteari buruzko aipamena kendu behar da Bizkaian; izan ere, eskumenaren aurkakoa da. Elkargoko kide egiteko eskatzen den kasuetan, era berean egingo da Estatu osoan.

B. Elkargoan sartzeko baldintzak

12. EELren 5.1. artikulua baldintza hauek ezartzen ditu lanbide-jarduera gauzatzeko:

- a) Dagokion titulua izatea, lege honetako 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b) Ez egotea desgaitasun profesionala edo egoera.
- c) Legeak ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
- d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Legeak hala araututa soilik, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.»

13. Gainera, OLALaren 4.8 artikulua ezartzen du osasun-arloko lanbide bat burutzeko indarrean dagoen antolamendu juridikoan aurreikusitako betekizunak eta baldintzak bete beharko direla. Edonola ere, osasun-arloko lanbide bat burutzeko, honako baldintza hauek ezinbestekoak izango dira:

- a) Elkargo bateko kide izatea, baldin eta Estatuko legeak betekizun hori ezartzen badu tituludun lanbide bat edo era horretako lanbide baten jarduerak burutzeko.
- b) Epai judizial irmo bat dela medio, lan egiteko ezgaituta edo zigortuta ez egotea, epaiak finkatutako denbora-tartean zehar.
- c) Osasun-arloko elkargo profesional batek emandako zehapen-ebazpen bat dela medio, lan egiteko ezgaituta edo zigortuta ez egotea, baldin eta Estatuko lege batek ezartzen badu lan hori egiteko elkargo bateko kide izan beharra dagoela; ebazpenak finkatutako denbora-tartean zehar.
- d) Administrazioaren zehapen-ebazpen irmo bat dela medio, lan egiteko zigortuta edo ezgaituta ez egotea, ebazpenak finkatutako denbora-tartean zehar; baldin eta lanbidea osasun-arloko asistentzia publikoarekin lotuta badago.



e) Sinatuta izatea eta indarrean egotea erantzukizun-aseguru bat, abal bat edo bestelako berme finantzario bat, babes pertsonalekoak edo babes kolektibokoak. Horrek osasun-arloko lanbide bat burutzean ematen diren laguntzak edo zerbitzuak direla medio pertsonari eragin ahal zaien kalte jakin baten erantzukizun profesionalak eragin ditzakeen kalte-ordainak barne hartu behar ditu”.

14. Estatutuek honako baldintza hauek ezartzen dituzte Elkargokoan sartzeko:

73. artikulua Elkargoan sartzea.

1.- Bizkaiko lurralde historikoan albaitari-lanak, edozein modalitatetan, egin nahi dituztenek jarduera profesionalarekin hasi aurretik, dela autonomo gisa edo beste norbaiten kontura eta dela erakunde publikoetan edo pribatuetan (edo sozietate profesional bateko kide profesional gisa), eskatu beharko du aipatutako Albaitarien Elkargo Ofizialean izena ematea, bere egoitza profesional bakarra edo nagusia dagoen lurraldean.

2. Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuan sartzeko, gaitasun orokor batzuk egiaztatu behar dira, hauek:

a) Espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa izatea, nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoa edo legezko jaregitea izan ezik.

b) Adinez nagusia izatea eta ezintasun-kausarik ez izatea.

c) Albaitaritza tituluaren jabe izatea, edo atzerriko tituluren batena baldin eta indarreko arauen arabera homologatuta badago, Europar Batasunaren arauetan eta erabakietan xedatutakoarekin bat.

d) Jarduera profesionalerako desgaitzen duen zigor-aurrekaririk ez izatea.

e) Sarrera-kuota ordaintzea, eta eskaera normalizatua egitea.

f) Lanbidean jarduteko egokitasun- edo gaitasun-eskakizunak betetzea, xedatuta daudenak eta erregelamendu bidez eta Albaitarien Elkargo Antolakundeko kide antizeko organoen erabakien bidez xedatzen direnak.

g) Estatutuak, araudiak eta elkargoaren xedapenak idatziz onartzea.

3. Elkargoko kide egin ezean, Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak legearen barruan lanbidea burutzen dutenak ofizioz elkargoko kide egin ahal izango ditu, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen espedientea egin ostean eta interesdunari entzunaldia eman ostean.

Halaber, Estatutuek ezartzen dute:

74. artikulua Elkargokide izateko eskaera.

1. Albaitarien elkargo ofizialen batean onartua izateko, jatorrizko titulua edo tituluaren notario-lekukotza eta ikasketa-ziurtagiria aurkeztu behar dira, dokumentu normalizatuaren egindako eskaerarekin batera. Titulua emateko eskubideak ordaintzearen inguruko Unibertsitatearen egiaztagiria jatorrizkoa ordezkatu ahal izango du, eta elkargoko kideak nahitaez aurkeztu beharko du eman zaionean. Horretaz gain, zigor-aurrekariaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko du, ziurta dadin eskatzaileak ez duela albaitaritzan jardutea eragozten dion inolako kausarik.



2. Eskatzailea beste probintzia batetik badator, horrez gain, jatorrizko Elkargoan emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horretarako, Espainiako Albaitarien Elkargoen Kontseilu Nagusiak ezarritako ereduari jarraituko zaio. Haren bitartez, aditzera emango da elkargoaren kuotak eta legeak eskatutako kargak ordaindu dituela eta lanbidea burutzeko behin-behinean edo behin betiko ezgaituta ez dagoela.

Eskatzailea Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa bada, arau erkideek xedatutako eskakizunak betetzen dituelako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

3. Jasota utzi behar du eskatzaileak lanbidean arituko dela, non egingo duen, zein modalitatetan, eta, halakorik bada, zein espezialitatetan.

4. Gobernu Batzordeak ebatziko ditu eskatzaileen sarrera-eskaerak; hori dela eta, hilabeteko epea izango du erabakitzeke zer egin behar den inskripzio-eskaera bakoitzean. Epe horretan inolako erantzunik ematen ez badu, onartutzat hartuko da.

5. Sarrera-eskaerak onartu edo ukatu egingo dira estatutu hauetan xedatutakoaren arabera. Gobernu Batzordeak egoki irizitako eginbideak eta, kasuan kasu, txostenak eskatuko ditu, eta bidezko den ebazpen arrazoitua jakinaraziko du. (...)

15. Elkargoan sartzeko egiaztatu behar diren baldintza orokorren artean, Estatutuen 73.1.c artikulua jasotzen du Albaitaritzako Lizentziatura titulua eduki beharra dagoela. Ez du aipatzen Albaitaritzako Gradua. Nolanahi ere, gradu hori ere baliagarria da Elkargoan sartzeko. Hortaz, Estatutuen 73.1.c artikulua aldatu beharko da, hori osatze aldera. Gehitu beharko da Albaitaritzako Graduko titulua, hala badagokio, egiaztatu beharko dela.

16. Estatutuen 73.2.f artikulua ezartzen du lanbidean jarduteko egokitasun-edo gaitasun-eskakizunak, xedatuta daudenak eta erregelamendu bidez eta Albaitarien Elkargo Antolakundeko kide anitzeko organoen erabakien bidez xedatzen direnak bete behar direla.

Hala ere, egokitasun- edo gaitasun-baldintza horrek EELren 5. artikulua ezarritako baldintzak gainditzen ditu. OLAL ere ez du baldintza hori jasotzen, lanbidea burutzeko bete behar direnen artean. Aitzitik, adierazten du Albaitaritzako Lizentziatura edo Gradua duten pertsonak lanbidean jardun dezaketela. Horregatik, estatutu-baldintza hori legearen aurkako da, EELren 5.2 artikuluekin bat eginez. Horrek ezartzen du beste lege batek soilik ezarri ahalko dituela EELk ezarritako baldintzak ez diren baldintzak. Elkargoak ez du lege-ahalmenik lanbidean jarduteko baldintzak ezartzeko, baldin eta legeak ezarritakoak ez badira.

Gainera, baldintza horrek lanbidera sartzeko zuhurtasun-faktorea sartzeko aukera ematen dio Elkargoari. Horrek sartzeko oztopo bat sortzen du, eta haren beharra ez da justifikatu. Izan ere, legeak eskatutako titulazioak, Albaitaritzako



Lizentziatura edo Graduak, elkargoko kide izatea eskatzen duenari aukera ematen dio lanbidean aritzeko adina ezagutza izateko¹⁷.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 73.2.f artikulua kentzea iradokitzen da.

17. Bestalde, Estatutuetako 73.3 Artikuluak aurreikusten du elkargoko kide ez diren al baitariak (lanbidean jarduten badute) elkargoko kide egin behar direla.

Horren harira, EELren 39.1 artikulua haxe xedatzen du: Profesionalen elkargoek nahitaez sartuko dituzte eskatzen duten pertsonak elkargoan, lanbide horretan jarduteko legez eskatzen den titulua badutela eta aplikatu beharreko xedapenetan eta estatutuetan oro har eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren¹⁸.

Hala, Elkargoak ez du lege-ahalmenik ofizioz elkargoko kide egiteko elkargoko kide ez diren al baitariak, baldin eta lanbidean jarduten ez badute. Horrek ez dio kalterik eragingo sor litezkeen erantzukizun penalei¹⁹.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 73.3 artikulua kentzea iradokitzen da.

18. Estatutuen 74.2 artikulua ezartzen du eskatzailea beste probintzia batetik badator, egiaztatu beharko duela elkargoaren kuotak eta legeak eskatutako kargak ordaindu dituela, bai eta bere lanbidean jarduteko behin-behinean edo behin betiko ezgaituta ez dagoela.

Estatutu-agindu horrek egoera bat barne hartzen du: Bizkaiko Albaitarien Elkargoa ez den beste elkargo bateko kide batek Bizkaiko lurralde historikoko Elkargoko kide egin nahi da.

¹⁷ Ikusi Euskadiko Osasun-arloko Lanbideen Antolamenduari buruzko Legearen 6. artikulua. Agindu horrek adierazten duenez, osasun-arloko lizentziatuei (besteak beste, al baitariei) dagokie, tituluak eskumena ematen dien jarduketa-esparruan, osasun-arreta integraleko prozesuko fase ezberdinetan eman beharreko zuzeneko prestazio pertsonala ematea; eta, hala badagokio, prozesu horren garapen osoa zuzentzea eta ebaluatzea ere bai. Horrek ez du esan nahi galerarik eragingo zaionik prozesuan esku hartzen duten profesionalen eskumenei, erantzukizunei eta autonomiari. Gainera, osasun-arloko al baitaritza-lanbidearen funtzioak zehazten ditu: animalia-jatorriko elikagaiak produzitzean eta eratzean higiena eta teknologia kontrolatzea, animalien gaixotasunak saihestea eta horien aurka aritzea ere, bereziki, zoonosiaren aurka; baita animalien bizitzak eta gaixotasunek gizakiei eragin diezazkioketen arriskuak saihesteko behar diren teknikak garatzea ere.

¹⁸ Ikusi Tituludun lanbideetan eta profesionalen elkargo eta kontseiluetan jarduteari buruzko Legearen 30. artikulua.

¹⁹ Auzitegi Gorenaren 2011ko otsailaren 28ko Epaia, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 7. sekzioa. (RC 5539/2009). Auzitegi Gorenaren 2013ko maiatzaren 8ko Epaia, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 6. sekzioa (RC 5384/2.010).



Bizkaiko Elkargoan sartzeko, ez da beharrezkoa beste al baitari elkargo baten kuotak edo kargak ordainduta daudela egiaztatzea. Beste probintzia batetik datorren eta elkargoko kide egitea eskatzen duen pertsona elkargoari egiaztatu beharko dio baldintzak betetzen dituela, Bizkaiko Elkargoan sartzeko; alde batera utzita beste al baitari-elkargoekin (kiden den elkargoekin) duen harreman juridikoa.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 74.2 artikulutik kendu behar dira beste probintzietatik egindako al baitarien elkargoan sartzeko eskaeren inguruko eskakizun guztiak.

C. Elkargokide izatea ukatzea.

19. Estatutuek elkargokide izatea ukatzeko kausak ezartzen dituzte.

75. artikulua Elkargokide izatea ukatzea.

Elkargokide egiteko eskaera kasu hauetan ukatuko da:

- b) Eskatzaileak ez badu egiaztatu jatorrizko elkargoko kideen kuotak ordaindu dituela.
(....)
- d) Beste elkargoren batetik kanporatu badute, eta birgaitu gabe badago.
- e) Jardun profesionala etenda badago eskaera egiten den unean, elkargoaren diziplina-zuzengarri irmo baten ondorioz.

20. Aurreko paragrafoan adierazi denez, Bizkaiko Elkargoan sartzeko ez dago baldintza hau zertan bete behar: beste probintzia batzuetatik datorren eskatzaileak jatorrizko elkargoko kuotak ordaindu dituela egiaztatzea. Hori dela eta, baldintza horrek elkargoko kide egiteari uko egiteko kausa izateari utziko dio, eta Estatutuetako 75.b artikulua kendu beharko da.

21. Beste elkargo batetik kanporatua izateagatik elkargoko kide egiteari uko egiteko, egiaztatu beharko da kanporatzea al baitarien beste elkargo batek egin duela. Halaber, elkargoko kide egiteari uko egin ahal izango zaio bakarrik, baldin eta eskatzailea kanporatzeko zehapena irmoa bada, eta lanbidean jarduteko ezgaitzea badakar.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 75.d artikulua aldatzea iradokitzen da.

22. Elkargoko kide egiteari uko egiteagatik lanbidean jardutea eteteari dagokionez, adierazi beharra dago EELren 5.1 artikuluan ezartzen dela Elkargoan sartzeko ezin dela lanbidean jarduteko ezgaituta egon. Hala badagokio, elkargoko kide egiteari uko egin behar izango zaio baldin eta eskatzailea ezgaituta badago lanbidean jarduteko.



Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 75.e artikulua aldatzea iradokitzen da.

2. Elkargokideen ordezkariak

23. Zera xedatzen du EEL Legearen 22. artikulua: «Elkargo profesionalen (...) helburua izango da kasuan kasuko tituludun lanbidea eta kideen interes profesionalak ordezkatzeko eta defendatzeko, baita elkargoko kideen zerbitzuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda».

24. Estatutuek ezartzen dute:

1. artikulua Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren izaera juridikoa.

(....)

5.-Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuari hau dagokio: albaitarien lanbidearen ordezkariak eskusiboa, elkargokideen jardura profesionalen antolamendua —haren eskumen-eremuan—, eta interes profesionalen defentsa. (...)

3. artikulua. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren helburuak eta funtzioak.

1. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren funtsezko helburua da albaitaritzaren lanbidearen ordezkariak instituzionala (bakarra) eta defentsa izatea, elkargoko kideen lan-interesak babestea eta beren elkargoko kideen zerbitzuen kontsumitzaileen nahiz erabiltzaileen interesak babestea. Horrek guztiak ez du esan nahi Europar Batasuneko, Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Foru-erkidegoko eta tokiko administrazioen eskumenei kalterik eragingo zaienik, funtzionario-zerrenda dela medio.

81. artikulua Elkargokideen eskubideak

Elkargokideek eskubide hauek izango dituzte: (...)

d) Elkargoaren eta, kasuan kasu, Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitarien Kontseiluaren eta Espainiako Albaitarien Elkargoetako Kontseilu Nagusiaren ordezkariak izango dute, jardun profesionalean judiziozko zein judizioz kanpoko erreklamaziorik egin behar dutenean; horretarako, kasuko ahalak eskuetsi beharko dituzte, eta elkargokide eskatzaileak berak ordainduko dituzten prozedura horrek sortzen dituen judiziozko gastuak eta kostuak. (...)

25. Elkargoak kideak ordezkatu ahaliko dituzten interesdunek espresuki eskatzen dutenean bakar-bakarrik. Beraz, Elkargoak berariaz ezarri beharko du Estatutuetan, elkargoko kideak borondatez ordezkatu behar direla.



3. Lanbideko ordainsariak

26. Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLren 5. artikulua elkargo profesionaleri esleitzen zien funtzio hura –ordainsari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan²⁰. EPLren xedapen gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalak «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak dira “kostuak tasatzeko²¹ aintzat hartu behar diren elementuak”. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

Bestalde, EPLk 5.o artikuluan ezartzen du lanbide-elkargoen funtzioetako bat dela lanbideko ordainsariak eztabaidagai dituzten administrazio- edo judizio-prozeduren berri ematea.

27. Estatutuek modu honetara erregulatzen dute auzi hori:

61. artikulua

1. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak ezin izango du laneko ordainsarien inguruko baremo orientagarriak ezarri, ez eta bestelako orientaziorik, gomendiorik, jarraibiderik, araurik edo erregelarik ere.

2. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak laneko ordainsariak kobratzeko zerbitzu bat ezarriko du, indarrean dagoen legediari jarraikiz, eta hori borondatezkoa izango da elkargoko kideentzat.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira zerbitzu horren ezaugarriak.

3. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak irizpide orientagarriak ezarriko ditu ordainsariei dagokienez, kostuak tasatze aldera eta prozesu judizialean kontuei zin egiteko.

²⁰ EPLren 14. artikulua: ordainsariei buruzko gomendioak debekatzea: «Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeak ezin izango dute ordainsari profesionaleri buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

²¹ LEB, *Elkargo profesionaleri buruzko txostena* op. cit., 71. orr.



28. Barne-merkatuko 2006ko Zerbitzuen Zuzendaritzak eskatu zuen Estatu Kideen araudia aldatzea, baldin eta horien edukiak zerbitzuen jarduerak garatzea oztopatzen bazuen, eta, ondorioz, aldez aurretik aipatutako elkargo profesionaletako araudia aldatzeko eskatu zuen.

Omnibus Legea 2009an jarri zen indarrean. Lege horrek EPLko zenbait agindu aldatu zituen: Besteak beste, EPLren 5. artikuluko ñ) letra kendu zuen (Omnibus Legearen 5. artikulua), eta 14. artikulua gehitu zuen. Horrek, hain zuzen ere, ordainsarien inguruan gomendiorik egitea debeketzen du:

«Elkargo profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionalei buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

Omnibus Legearen laugarren xedapen gehigarriak honako salbuespen hau ezartzen du, kostuak tasatzeari eta abokatuen kontuei zin egiteari dagokienez:

Elkargoek irizpide orientagarriak prestatu ahal izango dituzte, kostak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko.

Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

2012an, EAEko lurralde-esparruan, EELko zenbait artikulua aldatuko zituen euskal legea onartu zen. Artikulu horiek dira, besteak beste, 24. artikuluko e) letra, aurrerantzean Estatuko legean idatzita dagoen moduan idatzita egongo zena.

Kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko, irizpide orientagarriak prestatzeko salbuespena abokatuek bakarrik izango dute, ez, ordea, albaitariek.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 61.3 artikulua kentzea iradokitzen zaio Elkargoari.

4. Aurrekontua edo enkargu-oharra

29. Estatutuek modu honetara erregulatzen dute auzi hori:

60. artikulua Enkargu-oharra edo aurrekontua.

Elkargokideek beren bezeroei aurkeztuko diete enkargu-oharra edo aurrekontua, eta bertan adieraziko diete, gutxienez, prestazioaren helburuaren zehaztasunak eta aurreikusitako kostua, kontuan hartuta zein jarduera egin behar den edo nolako metodoa erabili behar den horretarako.

Elkargoko kideek Elkargoari borondatez emango diote lan profesionalaren enkargu-oharraren berri, kontrolatu dezaten.



30. Elkargoko kideek Elkargoari enkargu-edo aurrekontu-oharraren berri ematea ez dago babestuta lege-izaerako arau batean ere ez; izan ere, betekizun hori ez dago jasota EPLn edo beste lege batean.

Legeak ez die eskumena eman Elkargoari, lanbideko jardunaren kontrola egiteko elkargoko kideei.

Gainera, Elkargoek beren elkargoko kideek eman beharreko zerbitzuen aurrekontuak ezagutzea arriskutsua da lehiarako, murriztu egiten baitu. Elkargoen artean hitzartuko balute prezioak finkatzea edo merkatua banatzea, adostutako lehiaren aurkako jarrera kontrolatzeko mekanismo bat sortuko luke horrek. Hitzarmen hori ez badago, lehia murrizteko arriskua handia da zalantzarik gabe. Elkargoak bere elkargoko kideen enkargu- edo aurrekontu-oharrak kontrolatuz gero, albaitariak beren zerbitzuen truke kobratzen dituzten prezioak homogeneizatu litezke, batez ere, Elkargoak ordainsari profesionalak eztabaidatuko diren prozedura judizial edo administratiboetan informatzeko funtzioa badu.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 60. artikuluko bigarren paragrafoa kentzea iradokitzen da.

5. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua

31. EELk 24.f artikuluan ezarritakoaren arabera, elkargoaren berezko eginkizuna da, besteak beste, «hartzekoak, sariak eta ordainsariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

EPLren 5.p artikulua arabera, elkargoen eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien hartzekoen, sarien edo ordainsari profesionalen kobrantzaz, betiere, Elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituen eta Elkargo bakoitzaren Estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

32. Estatutuek ezartzen dute:

61. artikulua

(...)

2. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuak laneko ordainsariak kobratzeko zerbitzu bat ezarriko du, indarrean dagoen legediari jarraikiz, eta hori borondatezkoa izango da elkargoko kideentzat.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira zerbitzu horren ezaugarriak.

80. artikulua. Elkargokideen eskubideak

(....)



i) Elkargoari eskatzea zerbitzuen truke jaso behar dituzten ordainsariak kobratzeko izapideak egin diezazkiela baldin eta elkargoak horretarako zerbitzurik sortu badu. (...)

33. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua elkargoek beren kideen jarduera kontrolatzeko tresna posibletzat jo da²². Horren harira, gogoratu beharra dago, Elkargoari enkargu-oharraren jakinarazpenean dagoeneko adierazi denez, Elkargoak ez duela jardun behar -ez zuzenean ez zeharka- prezioak finkatzeko edo horien inguruan orientatzeko. Horregatik, Elkargoak ez du izango lehiaren aurkako jarrerarik gai horri dagozkion funtzioak betetzeko ari denean.

Bestalde, doitu beharko da ordainsariak elkargoaren bitartez kobratzeko zerbitzua eskatzen dutenek ordaindu beharreko zenbatekoa, Elkargoari izapide horrek dakarkion kostuaren heinekoa izan dadin; kostuak orekatua izan behar du, emandako zerbitzuarekiko proportziozkoa, ez da kalkulatu behar bezeroari fakturatu zaion funtzioaren arabera (zenbateko horri buruzko ehuneko), eta ez ditu barne hartu behar kasuan kasuko prestazio espezifikoaz besteko kostuak.

6. Onespena

34. EELren 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko funtzioak, eta Zehazki, i) letran, eginkizun hau ezartzen da: «bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionali oniritzia ematea, baina soilik bezeroek (herri-administrazioak barne) berariaz eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean».

Indarrean dagoen araudia Elkargoaren nahitaezko onespeneri buruzko 1000/2010 Errege Dekretua da, eta bertan ez da ezartzen profesional horiek gauzatutako ezein lanik²³.

EPLren 13. artikulua araberan, oniritziaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ziurtatzea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela bermatzea, dena delako lan horri aplikatzen zaion araudiaren arabera. Oniritziak oso argia izan behar du

²² «Zerbitzu-ordainak Elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde aurretik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea profesionalak itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, esanez badago ere, beren kobrantza Elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia bada, horiei buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak egotea erraz lezake» LEHIAKORTASUNAREN BATZORDE NAZIONALEAN. Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalen buruzko txostena. Madril, 2012ko apirilaren 26a. *zit.*, orr. 73.

²³ 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa (2010eko abuztuaren 6ko BOE, 190. zk.).



bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokienez. Bestalde, ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak, aldeek askatasunez hitzartu ahalko baitituzte. Halaber, ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa. Elkargoaren oniritzia ezinbestekoa den kasuetan, onespeneren kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminatzailea ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute oniritziaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da.

Horrez gain, artikulua horretako 3. zenbakiak honako hau gaineratzen du: «Elkargoak ikus-onetsitako lan profesional batek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenez».

35. Elkargoaren onespenerari dagokionez, Estatutuek honakoa adierazten dute:

84. artikulua Onespeneraren ezaugarriak.

Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialak bere eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onetsiko ditu, bezeroek (herri-administrazio gisa diharduten herri-administrazioak barne) hala eskatzen dietenean bakarrik, edota Gobernuak Errege Dekretuz hala agintzen duenean.

Elkargoak ezin izango du inola ere ez lan profesionalak onesteko betekizuna inposatu.

1. Onespeneraren xedea, gutxienez, honako hauek egiaztatzea izango da:

a) Lanaren autorearen identitatea eta gaitasun profesionala, Elkargo Profesionalei buruzko Estatuko Legearen 10.2. artikuluan aurreikusitako elkargokideen erregistroaz baliatuz.

b) Lan profesionalaren dokumentuen zuzentasun eta osotasun formala, lanari berari aplikatu dakiokeen araudiari jarraikiz.

Edonola ere, onespenerak argi eta garbi adieraziko du zer xede duen. Horretarako, zer kontu kontrolatuko diren zehaztuko du, eta, hurrengo atalean xedatutakoarekin bat, Elkargoak bere gain hartzen duen erantzukizunaren berri emango du. Oniritzian ez dira jasota egongo, ez zerbitzu-sariak, ezta kontratuaren gainerako baldintzak ere, aldeek askatasunez elkarrekin hitzartu beharko dituztelako. Halaber, oniritzian ez da jasoko lanbide profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa. .

2. Elkargoak ikus-onetsitako lanek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenez.

3. Elkargoaren onspena agindu bada, onespeneraren kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere. Elkargoak publiko egingo ditu lan profesionalak onesteko prezioak, eta horiek bide telematikoz izapidetu ahal izango dira.



36. 1000/2010 Errege Dekretuak ez du zerrendarik egiten, albaitari batek egin beharreko eta onesteko agindua jaso duten lan profesionaleri dagokienez. Hortaz, Estatutuen 84. artikulua kendu behar da.

7. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

37. Elkargoaren baliabide ekonomikoei dagokienez, Estatutuek honako adierazten dute:

48. artikulua Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren baliabide ekonomiko arruntak:

Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren baliabide ekonomiko arruntak osatzen dituzte:

- a) Elkargoaren jarduerak sortutako edozein etekin, elkargoaren ondarea osatzen duten ondasunak edo eskubideak, eta elkargoaren banku-kontuetan gordetako funtsak.
- b) Elkargoan sartzeko kuotak.
- d) Gobernu Batzordeak finkatzen dituen eskubideak, edozein gairi buruzko irizpenak, ebazpenak, kontsultak edo txostenak emateko, ordainsarien arauketak barne.
- d) Kuota arrunten zenbatekoak, finakoak zein aldakorrak, eta aparteko kuotak, Gobernu Batzordeak ezarri eta Batzar Orokorrak aldez aurretik onartutakoak.
- e) Gobernu Batzordeak ziurtagiriak egiteko finkatutako eskubideak.
- f) Espainiako Albaitarien Elkargoen Kontseilu Nagusiak edo Euskadiko Albaitarien Elkargoen Erkidego Kontseiluak inprimaki ofizialetan eta bestelako ziurtatze-, bermatze eta identifikatze-elementuetan esleitu dezaketen parte-hartzea.
- g) Elkargokideei bestelako zerbitzu orokorrak egiteak eragindako kopuruak.
- h) Gobernu Batzordeak xedatu edo finkatu, eta Batzar Orokorrak onartutako beste batzuk.

50. artikulua Sarrera-kuotak.

Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuan izena emateko, elkargokideek sarrera-kuota bana ordainduko dute. Horren zenbatekoa Gobernu Batzordeak finkatu eta aldatuko du, urterik urtera; elkargokide guztiei horren berri emango die, eta elkargokidegai guztientzat izango da bera. Elkargoko kide egiteko kuota ezin izango da inola ere inskribatzeko izapideekin lotutako kostuak baino handiagoa izan.

51. artikulua Kuota arruntak.

Elkargoaren mantentze eta funtzionamendu arrunterako ordaindutakoak izango dira kuota arruntak.

Albaitari elkargokideek, jardunean egon zein ez, nahitaez ordaindu beharko dituzte kuota horiek. Gobernu Batzordeak finkatu, eta Batzar Orokorrak onartuko ditu.

Elkargo bikoitz edo anitzeko elkargoko kideek kide diren Elkargoetako kuota arruntak ordaindu behar dituzte.

52. artikulua Aparteko kuotak.



Aparteko ordainketarik edo zorrik badago, Gobernu Batzordeak proposatuta, Batzar Orokorrak aparteko kuotak ezarri ahal izango ditu, eta elkargokideek nahitaez ordaindu beharko dituzte.

38. Lehiaren Espainiako Batzordeak Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren osteko Elkargo Profesionalei buruzko txostenean adierazi du²⁴,

Ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da, eta gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake.

39. Espainiako edozein profesional elkargo bateko kide bada, ahalmena izango du lurralde osoan zerbitzua emateko. Beraz, bi elkargoko kide izatea ez da egokia, eta Estatutuetatik elkargo anitzeko kide egiteko aipamen hori kendu behar da, elkargoko kideak oker ez daitezen.

8. Elkargoa lehian elkargokideekin

40. Lehia Desleialaren Legearen 15. artikulua ezartzen du «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daitekeela.

Bestalde, EELren 24. artikulua j. letran ezartzen duenez, eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo beren ekimenez lantzen dituzten txostenak emango dituzte.

Amaitzeko, EELren 5. artikulua Elkargoko kidea izateko betekizunak ezartzen ditu

“1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- a) Dagokion titularen jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- b) Ez egotea desgaitasun profesionala edo egoeran.
- c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
- d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Legeak hala araututa soilik, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.»

²⁴ Lehiaren Espainiako Batzordea, Elkargo Profesionalei buruzko txostena *op. Cit* 57.orr.



41. Estatutuen 48.c artikulua Elkargoaren diru-sarrerako iturri gisa ezartzen ditu Gobernu Batzordeak finkatzen dituen eskubideak, edozein gairi buruzko irizpenak, ebazpenak, kontsultak edo txostenak emateko, ordainsarien arauketak barne. Hala ere, artikuluan ez da jasotzen horien izaera. Adierazi beharra dago, nolana ere, horiek izaera profesionaleko lanak badira, elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko direla, elkargoak ez baitu horiek garatu ahal izateko titulurik. Bestela, bere elkargokideekin lehian arituko litzateke Elkargoa²⁵. Bi ondorio izan ditzake Elkargoak albitarien berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat izatea, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea; horrenbestez, profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin liezaioke.
- Eragile batek (Elkargoak) lehentasuna izatea Elkargoko kideen kaltetan, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, Elkargoak «beretzat har» lezake negozioa, zerbitzu jakin batzuk Elkargo barnean banatuta.

Ondorioz, aipatutako artikulua ezabatu ezean, hitz hauek eranstea proposatzen da: “Pertzepzio horiek ezingo dira inola ere etorri Elkargoak albitari-lanbideari dagozkion zerbitzuak ematetik”.

9. Kuotak biltzea.

42. Elkargoak kuotak biltzeari dagokionez, Estatutuek honakoa xedatzen dute:

53. artikulua Kuotak biltzea.

Bizkaiko Albitarien Elkargo Ofizial Prestuak bilduko ditu kuota arruntak eta apartekoak, halakorik badago, hiru hilerik behin.

Halaber, elkargokide bakoitzak dagozkion eskubideak bilduko ditu, elkargokideen alde xedatzen diren gaikuntzen, irizpenen, tasazioen, sinadura-aitorpenen, zehapenen, prestazioen eta zerbitzuen ondorioz.

43. Irizpenak eta tasazioak direla medio dagozkion eskubideak biltzeko Elkargoaren ahalmenari dagokionez, dagoeneko adierazi da Elkargoak ezin duela jardun merkatuan, eta, horregatik, ezin du zerbitzu profesionalik eman,

²⁵ MLBNk, 110/13 arau-proiektuari buruz eman zuen txostenean (Lanbideko Zerbitzu eta Elkargoei buruzko Legearen aurreproiektuaren gainekoa), gomendatzen du aurreproiektuan sar dadila elkargoek zerbitzu-merkatuan beren elkargokideekin lehiatzeko debekua. Zehazki 34. artikuluan (Elkargoen funtzioak) gomendatzen da berariaz gehitzeko LBN zenak zenbait IPNtan gomendatutako debekua: Elkargoek zerbitzuak ematea merkatuan elkargoko kideekin lehian. 29. eta 30. orrialdeak Webgune honetan irakurri ahal da: <https://www.cnmc.es/es-es/cnmc/ficha.aspx?num=IPN%20110/13&ambito=Informes%20de%20Propuestas%20Normativas>.



elkargoko kideekin lehiatzeko. Hortaz, Elkargoak ezin izango du dirurik jaso irizpen edo tasazio mota horiengatik.

Zehapenak kobratzeari dagokionez, agindua irakurrita, antza denez, Elkargoak kideei ezarritako zehapenez ari dira. Hala ere, zehaztu beharko litzateke zehapen mota horietaz ari direla.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 53. artikulua aldatzea iradokitzen da.

10. Profesionalak ordezkatzeta zerbitzuak ematerakoan

44. EPLk 5.i. artikuluan ezartzen duenez, lanbide-elkargoei dagokie beren eskumenpeko eremuan elkargokideen lanbide-jarduera erregulatzeko funtzioa. Hala ere, gaien zuzendaritzan profesionalak ordeztuari dagokionez ezarrita dauden murrizketa motak elkargoaren funtzio horretatik harago doaz, argi eta garbi, eta Lehia Babesteko Legea urratu dezakete.

LBNak adierazi du merkatuaren eraginkortasun-ikuspegitik egokiena dela profesionalak ordezkatu ahal izatea bezeroak eskatuz gero, ahalik eta azkarren eta bezeroari ahalik eta kostu gutxien eraginda²⁶.

45. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

81. artikulua.- Elkargokideen betebeharrak. (...)

j) Aurretik beste elkargokide bati esleitu zaion lan profesional batean eskurik ez hartzea, lehenago Elkargoaren baimena jaso ez bada. Baimena jasoz gero, ordezkatuari jakinarazi beharko dio. Elkargoaren baimenak ezin izango du ordeztutako profesionalaren ordainsarien alde aurreko ordainketaren baldintzapean egon.

46. Profesionala ordezteko Elkargoak alde aurretik baimen-araubidea ezartzeak oztopo egiten dio Bizkaiko albaitarien merkatuko lehiari, eta lanbidean jardutea murrizten du. Hortaz, Estatutuen 81.j artikulua kendu behar da.

11. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan

47. ELL Legearen 11.2 artikulua intrusismoa eta arauz kanpoko beste zenbait lanbide-jarduketa erregulatzeko ditu; aditzera ematen duenaren arabera, honako hauek hartuko dira lanbideko arauz kanpoko jardueratzat: lanbideko arau deontologikoak urratzea; lanbidean behar den arretaz ez jardutea eta, ondorioz,

²⁶ LBN. *Elkargo Profesionalei buruzko txostena...* op. cit., 83.



elkargokidearen zerbitzu profesionalak hitzartzen dituztenen interesei kalte egitea; eta lehia desleiala egitea, Lehia Babesteari buruzko Legean, Lehia Desleialari buruzko Legean eta profesionalen elkargo bakoitzak lehia desleialari buruz emandako jarraibideetan eta Publizitateari buruzko Lege Orokorrean agindutakoaren arabera.

Arau horretan ez da inola ere jasotzen elkargoek lanbideko intrusismoa jazarri behar dutenik, ezta lanbidearen interesei eragiten dieten jardun ilegalak edo irregularrak ere. Betebehar hori ELL Legearen 1. artikuluan zehaztutako xede orokorraren barnean sartzen dela pentsatu daiteke, elkargoko kide diren pertsonen interes profesionalak defendatzeari eta elkargoek eskainitako zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen interesak babesteari buruzko xede orokorrean, alegia.

48. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

3. artikulua. Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren helburuak eta funtzioak.

(....)

2. Funtzioak. Elkargoak, bere helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAEko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu: (....)

g) Intrusismo profesionala saihesteko neurriak hartzea, eta Administrazioaren eta Justizia Auzitegien aurrean Gobernu Batzordeak ezagutzen dituen kasuak salatzea eta jazartzea. (....)

15. artikulua.- Eskumenak.

Elkargoaren Gobernu Batzordearen eskumenekoak dira honako hauek: (...)

r) Zilegi ez den lehiaren eta jokabide zantar eta ez-duinen aurkako neurriak zehaztea. (...)

67. artikulua. Arau-haustekak

1. Albaitariak egin ditzaketan eta haiei egotzi ahal zaizkien falta hauek larriak dira:

a) Albaitarien lanbidean jardutea, Albaitaritzako lizentziaduna izan gabe, hau da, agintaritza eskudunak araututako albaitaritzako ikasketa-tituluaren jabe izan gabe.

d) Albaitarien lanbidean jardutea, lanbiderako desgaiakuntza edo bateraezintasun- edo debeku-kausaren bat izanda.

2.- Albaitariak egin ditzaketan eta haiei egotzi ahal zaizkien falta hauek larriak dira:

(....)

b) Elkargo Antolakundeari intrusismo-egintza edo ezohiko jarduera profesional guztiak jakinarazi beharra urratzea, horien berri izanez gero, 18/1997 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bidegabeko lehia dakarten ekintzak. (....)



49. Elkargoaren funtzioa eskumeneko organoei intrusismo-jarduerak eta lehia desleiala jakinaraztera mugatu behar da, dagokion araudia aplikatu dadin²⁷. Diziplina-neurriak hartu ahalko dira, baina intrusismoko edo lehia desleialeko jokabideak daudela adierazten dituen ebazpen judizial bat dagoenean soil-soilik²⁸.

12. Sozietate profesionalak eta Elkargoko Erregistroan inskribatzea

50. EPLk honako hau ezartzen du 2. artikuluko 6. letraren bidez: «Sozietate gisako jardun profesionalak legeetan aurreikusitakoa beteko du. Elkargo profesionalak edo mendeko erakundeek ezingo dute berez edo estatutuen zein elkargoaren gainerako arauen bitartez sozietate gisako jardun profesionala mugatu».

51. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

67. artikulua. Arau-haustekak

2. Albaitariak egin ditzaketen eta haiei egotzi ahal zaizkien falta hauek larriak dira (...):

i) Merkataritza Erregistroari edo Elkargoari ez jakinaraztea sozietate profesional bat eratu dela, edo aurrerantzean egingo diren aldaketak, kideei, administrariei edo kontratu sozialari dagokienez.

j) Kapitalaren eta sozietate profesionalak administratzeko eta ordezkatzeko (dela hitzarmen publikoen bidez, dela hitzarmen pribatuen bidez edo dela kideekin hitzartutako jarduketan bidez) organoak eratzearen inguruan legeak aurreikusitakoak ez betetzea.

80. artikulua. Elkargokideen betekizunak(....)

2.g) Egoitza profesionala eta gerta daitezkeen aldaketak jakinaraztea kide den elkargoari edo elkargoari, bai eta jarduten duen (kide izanik edo ez izanik) sozietate profesionalen izendapena eta egoitza soziala, lanbidea eta legeak ezarritako gainerako kontuak ere, baldin eta jarduna kide profesional gisa egiten bada.

52. Sozietate Profesionalen Legeak (SPL) ezartzen du sozietate profesionalak osatu ahal izango direla legeak aurreikusitako sozietate-era guztietan²⁹. Sozietate profesionalako kontratua, haren aldaketak eta kide edo administrarien

²⁷ Ikusi 17. paragrafoa LEA, aldeztatik aipatutako *Graduatu Sozialen Kontseiluaren Estatutuei buruzko txostena*.

²⁸ LBN. *Elkargo Profesionalen buruzko txostena*.... op. cit. Or.: 75.

²⁹ Martxoaren 15eko 2/2007 Legea, Sozietate Profesionalen buruzkoa. 2007ko martxoaren 16ko BOE (65. zk.), abenduaren 22ko 25/2009 Legeak aldatua. BOE-A-2009-20725. Bertsio bateratua hemen eskuratu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-5584>.



aldaketan eskritura publiko bidez formalizatu beharko dira. Sozietatearen osaera eta hari eragiten dioten gainerako ekintzak Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko dira, bai eta sozietatearen organoen osaera ere. Aurrerago, egoitzari dagokion Elkargo Profesionalaren Sozietate Profesionalen Erregistroan inskribatu beharko dira. Horretarako, Merkataritzako Erregistratzaileak ofizioz jakinaraziko dio Lanbide Sozietateen Erregistroari inskripzioak gauzatu direla³⁰.

Albaitari profesionalek Elkargoari parte hartzen duten sozietate profesionalen osaeraren eta horietan gertatzen diren aldaketen berri eman behar ez dietela aintzat hartuta, Estatutuen 81.2.g artikulua kentzea iradokitzen da.

53. Bestalde, sozietatearen kontratuaren, haren aldaketen eta kideen eta administrariaren osaeraren aldaketen legezatasuna kontrolatzea dagokion eskritura publikoa baimendu duen Notarioari eta merkataritzako erregistratzaileari dagokie. Beraz, albaitari profesionalei ezin zaie eskatu funtzionario publiko horiei dagozkien jarduketan erantzule izatea. Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 67.2.j artikulua kentzea iradokitzen da.

13. Perituen zerrendak

54. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

3. artikulua. Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizial Prestuaren helburuak eta funtzioak.

(.....)

1. Zereginak. Elkargoak, bere helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAEko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

.i) Auzitegiei gai judizialetan peritu gisa lan egin dezaketen elkargokideen zerrenda ematea, edo Elkargoak berak haiek aukeratzea, dagokionean. (...)

55. Gai judizialetan peritu gisa aritu ahal diren elkargokideen zerrenda Auzitegiei emateko Elkargoaren funtzioari dagokionez, Elkargoa arretaz egin beharko ditu zerrendak egiteko eta peritu bat izendatzeko baldintzak, gardenak eta ez-diskriminatzaileak izan daitezen, eta nahi duten profesional guztiak gehitzeko aukera eman dezaten. Hona hemen lehiaren kontrako jokabideen zenbait adibide: zerrendaz arduratzen den elkargora nahitaez bildu beharra,

³⁰ Ikusi Sozietate Profesionalari buruzko Legearen 1., 7. eta 8. artikulua.



beste zerrenda batzuetan egotea bateraezina izatea, eta prestakuntza-ikastaroak edo aurretiko lanbide-esperientzia luzea eskatzea³¹.

14. Elkargokideen betekizunak

56. Estatutuek ezartzen dute:

81. artikulua. Elkargokideen betekizunak

1. Lanbidean sozietate profesional baten bidez jarduten badute ere, elkargokide guztiek lanbidean etika puruz jardun behar dute, Estatutu hauetatik eta lanbidean jarduteko Kode Deontologikotik datorren espirituari jarraikiz.

2. Honako eginkizun hauek ere bete behar dituzte elkargokideek, lanbidean sozietate profesional baten bidez jarduten badute ere: (...)

h) Idatziz jakinarazi behar dute, gaixotasunen edo absentzien ondoriozko ordezkapenik izanez gero, zein fakultatibo elkargokideek ordezkatzeko dituen, behar bezala jasota gera dadin.

i) Elkargoari eman behar dizkiote elkargokideen fitxategirako eskatutako datuak. Halaber, Gobernu Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitarien Kontseiluak eta Espainiako Albaitarien Elkargoetako Kontseilu Nagusiak egiten dizkieten errekerimenduei erantzun beharko diete, lan-batzorde berezietan parte hartzeko eta batzorde horietan lankidetzan aritzeko. (...)

57. Elkargoko kide bat ez badago edo gaixo badago, haren ordezkari beste norbait arituko dela Elkargoari jakinarazi behar zaio. Betekizun hori ezarriz, Elkargoak elkargoko kideen jarduna kontrolatzeko ahalmenak izango ditu, eta horrek legeak ezarritako xedekak gainditzen ditu. Gainera, baldintza horrek Estatutuek 72.6 artikuluan bidez elkargoko kide ez den profesional bati lurraldean aritzeko eskatzen dizkieten baldintzak gainditzen ditu. Estatutu-agindu horrek ezartzen du, EPLren 3.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Elkargoak profesional horiei ezin izango diela eskatu komunikaziorik ez eta gaikuntzarik ere.

Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 81.2.h artikulua kentzea iradokitzen da.

58. Elkargokideek Elkargoarekin kolaboratzeko beharra (81.2.i artikuluan ezarrita dago) zabalegia da eta ez dago oso ondo xedatuta. Horregatik, zehaztu beharko litzateke. Aintzat hartu behar da kolaboratzeko behar horrek elkargoko kideei eskatu ahal izango litzatekeela jarduera profesionalak egitea, eta Elkargoak merkataritza-etekinak atera ahal izango litzateke horietatik. Adierazitakoa dela eta, Estatutuen 81.2.i artikulua aldatzea iradokitzen da, bai eta nahitaezko errekerimenduen helburua zehaztea ere.

³¹ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA 2009ko otsailaren 9ko Ebazpena, 637/08 espedientea, Valentziako Erkidegoko aditu/arkitektoei dagokiena.



15. Albaitariak lehiaren araudira egokitzea

59. EPLren 2. artikulua ezartzen duenez, lehia libreko araubidean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez. Lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrak eta espezifikoak eraenduta egongo dira aurrerantzean ere lanbide-jardunaren alderdia.

60. Komeni da Estatutuetan berriaz aipa dadila lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatuko dela. Hala, Estatutuen 72. artikuluan bederatzigarren paragrafoa gehitzeko gomendatzen da, honela dioena:

«Lehia askeko erregimenean egingo da albaitaritza-lanbidea, eta Lehiaren Aldeko Legeari lotuta egongo da zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez».

V. ONDORIOAK.

Lehenengoa.- Albaitaritza-lanbidea lehia askeko araubidean egin behar da, eta erabat lotuta dago Lehia Babesteko Legeari, lanbidera sartzeari (elkargo bakarreko kide), ordainsariak xedatzeari eta Elkargoak ordainsariak kobratzeari dagokienez.

Elkargoen jarduketa kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestera zuzendu behar da, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat. Elkargoaren akordioak, erabakiak eta gomendioak LBLaren eraginpean daude.

Bigarrena.- Albaitariak elkargo bateko kide derrigorrez egin behar direla *Omnibus* Legearen ondorengo erregelamendu-arauan jasota dago, eta horrek aurka egiten dio Estatuko lege-izaerako aruari, elkargoko kide derrigorrez egin beharra dagoela agintzen duenari.

Edonola ere, elkargoko kide egiteari ezin zaizkio lurralde-mugapenak ezarri, eta berriaz ondorioztatu behar da Espainiako edozein elkargoko kide izateak lurralde osoan jarduteko aukera ematen duela.

Hirugarrena.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, txosten honen bidez, Bizkaiko Albaitarien Elkargoaren estatutuko artikulua hauek aldatzea behar-beharrezkoa dela planteatzen du:

1.5 eta 3.1 (Elkargoak baino ez ordezkatzeari lanbidea)

1.5 eta 72 (Elkargoko kide egitea nahitaez)



- 48.c (Elkargoaren baliabide ekonomikoak)
- 53 (Kuotak biltzea)
- 73.1.c (Elkargoan sartzeko titulazioa behar izatea)
- 75. d (Elkargoko kide egitea ukatzea beste elkargo batetik kanporatu izanagatik)
- 75. e (Uko egitea lanbidean jarduteko zigortu izanagatik)
- 80. d (Elkargoa borondatez ordezkatzeta)

Artikulu hauek ezabatu behar dira:

- 60, bigarren paragrafoa (Aurrekontua edo enkargu-oharra)
- 61.3 (Ordainsari profesionaleri buruzko irizpide orientagarriak)
- 67.2. i eta j (Sozietate profesionalak)
- 73.2.f (Lanbidean jarduteko egokitasun- edo gaitasun-baldintzak)
- 73.3 (Elkargoko kide ofizioz egitea)
- 74.2 (Jatorrizko elkargoko kuotak ordaindu direla egiaztatzea)
- 75.b (Elkargoko kide egitea ukatzea jatorrizko elkargoko kuotak ordaindu ez izanagatik)
- 79.3, 4, 5 eta 6 (Elkargokide klaseak)
- 81.2.g (Sozietate profesionala jakinaraztea, izendatzea eta egoitza adieraztea)
- 81.2.h (Zerbitzua emateko ordezkariaren berri ematea Elkargoari)
- 81.2.i (Elkargoaren errekerimenduak elkargokideei)
- 81.2.j (Zerbitzua emateko ordezkatzeko Elkargoaren alde aurreko baimenaren berri ematea)
- 84 (Elkargoaren onespena)

Azkenik, Estatutuen 72. artikuluan bederatzigarren paragrafoa gehitzeko gomendatzen da, honela dioena:

«Lehia askeko erregimenean egingo da albaitaritza-lanbidea, eta Lehiaren Aldeko Legeari lotuta egongo da zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez».